

Baldintzazko perpausen erabilera desegoki batzuk zuzentzen

Ikus ditzagun, lehenik, erabilera egoki batzuk:

Baldintza eta kausa: kausa-ondorio erlazioa

- Arin ibiltzen bazara, garaiz helduko zara ekitaldira.
- Subjektua egoera fisiko txarrean badago, arteria-presioa handitzen da esfortzua egitean.

Baldintza eta denborazko aldiberekotasuna

- Auzitegira joaten bada, goiz guztia ematen du han.
- Ane ikusten baduzu, deituko diodala esaiozu.

Baldintza eta hipotesia

- Atzerrira joaten badira, lana aurkituko dute.
(Gertakorra).
- Ispiluek gezurra esango balute, zoriontsu biziko ginateke. (Gertagaitza-edo).

Inferentzia bidezko erabilerak

- Gose bazara, hamaiketakoa egin dezakegu.
- Arantza agertu ez bada, honezkero joana da.
- Anek halakoak esan badizkizu, barruak agintzen ziolako esan dizkizu.
- Miren etortzen bada, berandu etorriko da.
- Hori abokatua bada, ni astronauta!

Adiera horietaz gainera, kontrastea adierazteko ere erabiltzen dute hiztun batzuek baldintza*. Ez dugu egokitze jotzen halako erabilera:

#Gaur eguraldi ona egin badu, bihar eguraldi traketsa izango dugu.

Horren kideko perpaus kontzesiboak ere ez du adierazten kontrastea, eragozpen gainditua baizik:

- Gaur eguraldi ona egin badu ere, bihar eguraldi traketsa izatea espero dugu.

*Gogoan hartu **bitartean** ere ez dela egokia kontrastea adierazteko.

Ikus: Kalko okerrak: "bitartean" (2007-05-24) [pps/](#) [pdf](#)

Kontrastea adierazteko, egokiak dira
juntadura zein alborakuntza, eta, aukeran,
lokailuren batek (*berriz, aldiz, oster...*)
areago nabarmenaraz dezake kontrastearen
ideia:

Josuk igeriketa aukeratu du, eta Anek
(, berriz), futbola.

Gaur, eguraldi ona egin du; bihar, (*aldiz,*)
eguraldi traketsa izango dugu.

Hona beste adibide batzuk:

#Gasteizko biztanle-kopuruak gora egin badu, Donostiakoak behera egin du.

- Gasteizko biztanle-kopuruak gora egin du, eta Donostiakoak (, berriz), behera.
- Gasteizko biztanle-kopuruak gora egin du; Donostiakoak (, berriz), behera.

#Lehen politikak agintzen bazuen, orain merkatuak agintzen du.

- Lehen politikak agintzen zuen; orain (, ostera), merkatuak agintzen du.